

Aurkibidea

Aurkezpena	3
Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia	5
1. Sarrera	5
2. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia	6
3. Esparruak, estrategiak eta ekintzak	6
Esparruak, helburuak, adierazleak, estrategiak eta ekintzak	9
1. Familia transmisioa	11
2. Euskalduntzea-prestakuntza	15
3. Irakaskuntza	21
4. Administrazioa	25
5. Lan mundua	27
6. Aisia	31
7. Kirola	35
8. Kulturgintza	39
9. Komunikabideak	51
10. Teknologia berriak	55

Aurkezpena

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ezinbesteko tresna da euskararen normalizazioaren inguruan indarrak biltzeko, irizpideak finkatzeko, indarguneak sendotzeko, ahuleziak konpontzeko eta elkarlana bideratzeko eta indartzeko.

Hortaz, argia eta zehatza behar du izan, eta gizarte esparru guztiak hartu behar ditu bere baitan: familia transmisioa, euskalduntzea eta prestakuntza, irakaskuntza, administrazioa, lan mundua, aisia, kirola, kulturgintza, komunikabideak eta teknologia berriak.

Administrazioari buruzko esparrua Durangoko Udalak 2008ko abenduaren 18an aurkeztu eta onartu zuen *Euskararen Erabilera Planean* dago jasota bere luze-zabalean. Beraz, oraingo dokumentu honetan beroni buruzko aipamen labur bat besterik ez da egingo.

Aipatutako hamar esparruotarako helburu zabalak zehaztu dira, baina guztiak ere erdiesteko modukoak dira. Adierazleak ere aipatzen dira, giza mailakoak batzuk eta diruzkoak besteak, eta helburuok eskuratzeko ezinbestekoak diren estrategiak ere bai, esaterako, sentsibilizazioa, komunikazioa eta laguntza teknikoa eta ekonomikoa. Azkenik, ekintzak agertzen dira, batzuk lehendik ere bagenituen eta beste asko, berriak dira.

Orain dakargun 2009-2012ko Plan Estrategiko honek osatu egiten du duela lau urteko Plana, 2005-2008koa alegia. Lehendik geneuzkan ekintzak ebaluatu egin dira, eta egokiak direnak hobetsi. Baina, honetaz gain, jauzi handi bat egin dugu ekintza berriak jorratze aldera: aurreko Plan Estrategikoak 65 ekintza biltzen zituen eta oraingoak, ostera, 128.

Egiari zor, ezin dut aipatu gabe utzi Plan honen atzean dagoen batzar askotako talde-lana eta jarduna. 2009-2012 urtealdirako Plan Estrategiko hau ez da ezerezetik sortu. Gorago aitatu den moduan, Durangoko Udaleko Osoko Bilkurak duela lau urte onartu zuen Plan Estrategikoa du iturburu. Eta, orduan zein orain, ezinbestekoak eta zinez oparoak izan zaizkigu Euskararen Aholku Batzordeko kideek eginiko iradokizunak eta ekarpenak. Batzar askoren eta lan eskergaitzen emaitza da orain aurkezten den Plan Estrategikoa: "ekinez egina" hau ere.

Mari Jose Balier Orobio-Urrutia
Euskara eta Kultura Batzordeko presidentea

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

1. Sarrera

2009. urtean hogeita hamar urte betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoak euskara hizkuntza ofizial aldarrikatu zuenetik. Euskarari ofizialtasuna aitortzearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortu zitzairen herritar guztiei. 1979tik hona hainbat arau eta erakunde egin eta arautu dira euskararen gaitasun, erabilera eta estatusa berreskuratzeko Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean. Ipar Euskal Herrian, aitzitik, euskararen aldeko neurriotako bakan batzuek bakarrik ikusi dute argia.

Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako neurri garrantzizkoenetako bat Euskararen erabilera Arauzkatzeko 10/1982 Oinarrizko Legea izan da. Lege honek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu zuen, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko euskarari hain beharrezko zitzaion erakundeen babesa eskainiz.

1979az geroztikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoak hartutako neurriak irakaskuntzan, komunikabideetan, herri-administrazioan eta kulturgintzan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko begira: Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordea (1982), Euskal Irrati Telebista (EITB, 1982), EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua (1983), HABE (1983), IVAP (1983), HPS (1983) eta Administrazioetako Hizkuntza Normalkuntzarako Plana (1989).

1996an, Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordea eraberritu zuen, eta euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko hizkuntza-politiken eraginkortasun-maila neurtzeko eta ebaluatzeko agindu zitzaion, hain zuzen ere, indarguneak eta ahuleziak zehaztea. Azken finean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egitea eskatu zitzaion.

Durangoko Udalak duela lau urte onartu zuen bere lehenengo Plan Estrategikoa, hau da, 2005-2008 urtealdiari zegokiona. Orain, beraz, bigarren Plana prestatzea egokitzen da, hurrengo lau urteetarako nondik norakoak finkatuko dituen. Nolanahi ere, datorren plangintza-aldiko dokumentua aurkeztu baino lehen, labur bada ere, azalpen batzuk emango ditugu euskararen Plan Estrategikoaren eginkizun nagusiei buruz.

2. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da. Bere egiteko nagusiak honako hauek dira:

- Arazo nagusiak aurreikusi eta epe motzera eta luzeagora erdietsi behar diren helburuak adostu, egitarauak egokitu eta ebaluazio-irizpideak zehaztea.
- Euskara biziberritzeko aurrekontuak sakon aztertzea eta egungo egitarauak etorkizunean izan dezaketen eragina aurreikusiz lehentasunak finkatzea.
- Herri-erakundeen arteko koordinazio hobetzea eta euskalgintzan diharduten bestelako enpresa eta herri-elkarteekiko harremanak bideratzea.

Plan estrategiko hau ez da dokumentu itxi eta aldaezina, irekia eta etengabe egokitzeko sortua baizik, alegia, herrigintzan eta gizartegintzan diharduten sektore eta taldeen ekarpenez aberastuko dena. Beraz, euskararen aldeko sustapen-politika gidatzeko eta euskalgintza diharduten elkarte, talde eta erakundeekiko elkarlana bideratzeko oinarrizko erreferentzia eta tresna izan nahi du.

3. Esparruak, estrategiak eta ekintzak

Durangoko Udalaren 2009-2012ko Plan Estrategikoak hamar esparru hauek bereizten ditu:

1. Familia transmisioa
2. Euskalduntzea-prestakuntza
3. Irakaskuntza
4. Administrazioa
5. Lan mundua
6. Aisia
7. Kirola
8. Kulturgintza
9. Komunikabideak
10. Teknologia berriak


Helburu bakoitzean eragingo duten adierazleak ere aipatzen dira, eta helburuok lortzeko behar beharrezkoak diren estrategiak ere bai. Azkenik, ekintzak agertzen dira, eta ekintzok garatzerako orduan lehentasunak ezartzen dira.

Beraz, Plan Estrategikoan jarraituko dugun eskema honela laburbiltzen da:

Esparrua ⇒ helburuak ⇒ adierazleak ⇒ estrategiak ⇒ ekintzak

Ibilbide honi azken geltokia falta zaio: ebaluaketa, hots, urtean zehar egindakoa aztertzea eta objektiboki neurtzea. Azken urrats hau urte bakoitzean egingo den behin betiko Kudeaketa Planean jasoko da, eta abiapuntu bilakatuko da hurrengo urteko Kudeaketa Plana diseinatzeko.

Beste barik, datozen orrietan Durangoko Udalaren 2009-2012rako Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa aurkezteko dugu.



1. Familia transmisioa

Helburua: Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin.

ADIERAZLEAK

- Derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzean, ama hizkuntza euskara duten haurren %
- Etxean erabiltzen den hizkuntza
- Lehen hizkuntza (> 5 urte) adinaren arabera
- Hizkuntzaren bilakaera (> 5 urte) adinaren arabera

1.1. Sentsibilizazioa

1.1.1. Guraso eta aitona-amonetan eragin, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko: haurrek egindako pegatinak, triptikoak...

- Ikastetxeekin batera plana egin, gurasoengana iristeko bide eraginkorra baita.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

1.1.2. Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia...

- ESADAZU EUSKARAZ kanpainaren bitartez umeei euskara transmititzeko hainbat aholku ematen zaizkie gurasoei

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

1.1.3. Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.

- Ikastetxeekin batera plana egin, gurasoengana iristeko bide eraginkorra baita.

Arduraduna: Euskara eta Hezkuntza Sailak

Lehentasuna: Altua

1.1.4. Kultura ekonomia edo politika munduko pertsona erreferentzialen bitartez mezuak zabaltu komunikabideetan, musika bidez, kirolaren bitartez, e.a.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Ertaina

1.2. Komunikazioa

1.2.1. Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneeetan eskuragarri jarri.

- Udala www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da, batez ere, "Euskarazko produktuen katalogoa" zabaltzeko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

1.2.2. Haurrentzako zerbitzuei buruzko informazioa ezagutzera eman.

- Euskaraz dakiten haur zaintzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura ipini.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

1.3. Ekitaldiak antolatu

1.3.1. Guraso berrientzako saio erakargarriak antolatu euskaraz: haurrak nola hezi, nola elikatu ondo, gaixotasunei nola egin aurre.

- Esparru honetan ari diren eragilearekin batera plangintza egin, saio, ikastaro eta jardunaldiak antolatzeko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

1.3.2. Familia barruan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo zehatzak martxan jarri: Gurasolagun...

- BERBALAGUN egitasmoaren barruan sartu. Ikastetxeekin batera plana egin.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

1.3.3. Ekitaldiak antolatu familia osoa aintzat hartuta, eta ikastetxea eta guraso elkarrekin elkarlanean: Gabonetan, Santo Tomas egunean, Santa Ageda egunean edo tokian tokiko ohiturak kontuan hartuta.

- Ikastetxeekin batera plana egin beharko da euskal tradizioko jaiak familia artean igarotzeko. INAUTERIETAN: SURRENDIEN KONPARTSA, BASOKOIPETSU..

Arduraduna: Euskara eta Hezkuntza Sailak

Lehentasuna: Altua

1.3.4. Irteerak antolatu Euskal Herrian zehar: euskal kulturari lotuta dauden parke, museo, gune, ekitaldietara: ikastolen egunak, eskola publikoaren festa, Euskararen Eguna, Durangoko azoka...

- Ikastetxe eta elkarteekin batera plana egin beharko da euskal kulturaren adierazpenak ezagutzera emateko: Maskaradak, Inauteriak (Lantz, Unanue...). Pastoralak.

Arduraduna: Kultura, Hezkuntza eta Euskara

Lehentasuna: Ertaina

2. Euskalduntzea eta Prestakuntza

Euskalduntzea

Helburua: Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

ADIERAZLEAK

- Ikasle kopurua herriko euskaltegietan
- Ikasleak/ (erdaldunak+ia euskaldunak)
- Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira
- Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua
- Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua
- Ikasleen jarraitasun-tasa
- Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna
- Euskal hiztunen alfabetatze maila
- Kale neurketaren emaitza

2.1. Sentsibilizazioa

2.1.1. Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, herriko eta inguruko eragileekin elkarlanean: kartelak, tokian tokiko komunikabideetan mezuak, euskararen egunean agintari politikoen agerraldiak, pegatinak, egutegia, e.a.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

2.1.2. Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatu, euskara ikasteak ekar litzaiekeen onurak azpimarratuaz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartu.

- ETORKINENTZAKO ONGI ETORRI PROGRAMA diseinatu Inmigrazio Saila eta helduen euskalduntzearekin batera, umeak eta helduak kontuan hartuta.

Arduraduna: Inmigrazio eta Euskara Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

2.1.3. Tokian tokiko euskalkia bultzatu.

- Herri mailako hedabideetan eragiteko ahalegin egingo da, batez ere ahozko hedabideetan, bertako euskara erabili dezaten: Anboto Irratia, Anboto Telebista, Anboto Astekaria, Durango Irratia...

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

2.2. Komunikazioa

2.2.1. Eskualdeko euskaltegien gaineko gida osatu: zerbitzuak, ordutegiak, helbideak... eta herritarrengana zabaldu.

- EUSKARA IKASTEKO ESKAINTZAREN BERRI EMATEA. Euskara ikasteko eta praktikatzeko dauden aukeren berri eman herritarrei. Udala www.durango-euskaraz.net web guneaz ere baliatuko da zabalkunde egiteko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

2.2.2. Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian: web orria erabilia, triptikoak, eskualdeko aldizkaria (prozesua, udalak zer laguntzen duen, metodologia, ziurtagirien baliokidetzeak, egonaldiak familia euskaldunetan programa...)

- Udala, batez ere, www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da honen guztiaren berri emateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

2.2.3. Etorri berriei bereziki zuzendutako komunikazioa kanpainak egin: mezuak zaindu, bere hizkuntzetara egokitu....

- ETORKINENTZAKO ONGI ETORRI PROGRAMA diseinatu Inmigrazio Saila eta helduen euskalduntzearekin batera, umeak eta helduak kontuan hartuta.

Arduraduna: Inmigrazio eta Euskara Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

2.3. Laguntza ekonomikoa eskaini

2.3.1. Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: klasera joateko edota auto-ikaskuntza bidez ikasteko.

- BEKAK EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEKO. Udalak bi eratara ematen ditu dirulaguntzak: Euskara Sailak euskaltegi pribatu, homologatu eta barnetegietan ikasten ari diren ikasleei itzultzen die matrikularen erdia baldin eta baldintza batzuk betetzen badituzte. Udal Euskaltegiak gauza bera egiten du bere ikasleekin.

Arduraduna: Euskara Saila, Udal Euskaltegia

Lehentasuna: Altua

2.3.2. Euskararen oinarri-oinarrizko irakaskuntza finantziatu: etorri berrientzako murgiltze saioak 16 urtetik beherakoentzat; transmisioa bermatzeko, 0-6 urte arteko haurren gurasoentzako ikastaroak...

- EUSKARA INDARTZEKO SAIOAK eskainiko zaizkie 5 eta 16 urte bitarteko ume eta gazte etorri berriei, ikastetxeekin batera plangintza eginda.

Arduraduna: Inmigrazio eta Euskara Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

2.4. Ikastaro bereziak antolatu eta euskara lantzeko euskarriak eskaini

2.4.1. "Mintzalagun" proiektua jorratzeko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna...

- BERBALAGUN egitasmoa ari da Udala garatzen herritarrek euskara erabiltzeko aukera izan dezaten. Egitasmoa indartu eta zabaldu behar da, "gurasolagun" "dantza-lagun", "kuadrillategi" edota antzeko ekimenak abian ipinita, helduen euskalduntzearekin elkarlanean.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

2.4.2. Euskararen ezagutza beharrak aintzat hartu eta ikastaroak antolatu herriko edo eskualdeko euskaltegiekin elkarlanean: galdutako trebetasunak berreskuratzeko edo birziklatzeko; euskarazko terminologia lantzeko; mintzamina lantzeko; jendaurrean hitz egiteko; herri hizkeraz; hitanoaz... Begirale, kirol entrenatzaile, eskolaz kanpoko jardueretako arduradun, irakasle, euskaltegi-tako irakasle, komunikabide-tako esatari, merkatari, ostalari, udaltzaintzako hobekuntza ikastaroak antolatu.

- IKASTARO ESPEZIFIKOAK antolatuko dira sektoreka eta, beti ere, sektore-tako herriko eragileekin batera eta beharrei egokitu.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

2.4.3. Etorri berriei zuzendutako ikastaro bereziak antolatu, metodologia egokia erabilita.

- ETORKINENTZAKO PROGRAMA. AISA HARRERA IKASTAROA eskaini etorri berriei. 2.2.3 komunikazioa ekintzarekin uztartuta.

Arduraduna: Inmigrazio eta Euskara Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

2.4.4. Euskarazko komunikazio gaitasuna hobetzeko saioak antolatu euskaltegi eta ikastetxeekin elkarlanean, jolasak, txapelketak, irteerak, antzerkiak, eta orokorrean, gai ludikoak aintzat hartuta. Ahozko adierazpena indartzeko ekintzak antolatu.

- Helburu honekin egiten diren ekintzak guztiak plan berean sartu eta eskaintza bateratua egiteko beharra dago.

Arduraduna: Euskara eta Hezkuntza Sailak

Lehentasuna: Altua

Prestakuntza

Helburua: Helduen prestakuntzaren eskaintzan euskararen erabilera handitu

ADIERAZLEAK

- Helduen prestakuntza euskaraz, edo batez ere euskaraz, ematen duten akademia/zentro/elkarteak (%)
- Udaletik kanpoko egiturek euskaraz ematen dituzten ikastaroak (%)
- Udalak antolatzen dituen euskarazko ikastaroak (%)
- Ikasle kopurua euskaraz emandako ikastaroetan (%)

2.5. Sentsibilizazioa eta komunikazioa

2.5.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko helduen prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

- Udala, batez ere, www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da herritarrei honen guztiaren berri emateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

2.5.2. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragin (autoeskolak, jubilatuz elkarte, kultur elkarte, merkataritza elkarte), ikastaroak euskaraz ere antolatzeko.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala herriko helduentzako prestakuntzan eragiteko kanpaina espezifikoaren bidez.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

2.6. Eskaintza sustatu

2.6.1. Udalak antolatzen dituen ikastaroak euskaraz ere izan daitezela bultzatu.

Azalpena: Udalak onartuta duen administrazio barruko euskara planean ondokoa zehazten da:

3.7. Hizkuntza-irizpideak jasotzea Udalak antolatutako ekimenen eskaintzan.

Udaleko sail guztiek, erakunde autonomoak barne, euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, inmigrazioa eta kirol arloek euskaraz ere eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen denean argi eta garbi adierazi behar da berau zein hizkuntzatan egingo den.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

2.6.2. Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, lehen arreta, dantza₁₈ ikastaroak, reflexoterapia...

- Udalak onartuta duen administrazio barruko euskara planean ondokoa zehazten da:

3.7. Hizkuntza-irizpideak jasotzea Udalak antolatutako ekimenen eskaintzan.

Udaleko sail guztiek, erakunde autonomoak barne, euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, inmigrazioa eta kirol arloek euskaraz ere eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen denean argi eta garbi adierazi behar da berau zein hizkuntzatan egingo den.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

2.7. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

2.7.1. Laguntza eskaini, beste eragileek antolatzen dituzten ikastaroak (jubilatutako elkarteak, kultur elkarteak, merkataritza elkarteak...) euskaraz izateko: matrikula merkeagoak, diru-laguntzak, irakasleak topatzeko bideak...

- GUK EUSKERAZ egitasmoren bidez ematen du Udalak herriko eragileek antolatzen dituzten ekintzatarako laguntza teknikoa, batez ere.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

3. Irakaskuntza

Ikastereduak

Helburua: Euskarazko ikastereduak sustatu

ADIERAZLEAK

- 0-3 urte bitarteko udalerriko haur kopurua
- 0-3 bitarteko plaza kopurua euskaraz
- 0-3 bitarteko matrikulazioa euskaraz (%)
- Haur eta Lehen Hezkuntzako plaza kopurua D ereduan
- Haur eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa D ereduan (%)
- DBHko plaza kopurua D ereduan
- DBHko matrikulazioa D ereduan (%)
- Batxilergoko plaza kopurua D ereduan
- Batxilergoko matrikulazioa D ereduan (%)
- Lanbide Heziketako plaza kopurua D ereduan
- Lanbide Heziketako matrikulazioa D ereduan (%)
- Etorri berrien matrikulazioa D ereduan (%)

3.1. Sentsibilizazioa

3.1.1. DBH, Batxiler, Lanbide Heziketan sartzear dauden gazteengan eragin, euskarazko ereduetan ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko: gutunak, SMSak, hitzalditxoak...

- D EREDUAREN ALDEKO KANPAINA, IKASLEEI ZUZENDUA. *Zeurea da aukera* izeneko kanpainaren antzekoak bideratuko ditu udalak.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

3.2. Komunikazioa

3.2.1. Gurasogai eta guraso berriei banan-banako informazioa eman 0-3 adin taldean udalerrian dauden zerbitzuez.

- Adin talde honi zuzenduta Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen gida atera eta banatu jaio berrien erregistroaren eta haurtzaindegien bidez.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

3.2.2. Etorri berriei bereziki zuzendutako hitzaldiak eta banan banako elkarrizketak antolatu euskarazko eredu berri emateko: beste etorri berri batzuen esperientzia, emaitzak, dauden laguntza aukerak... azaltzeko.

Arduraduna: Inmigrazio, Hezkuntza eta
Euskara Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

Eskolaz kanpoko

Helburua: Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueratan euskararen erabilera areagotu.

ADIERAZLEAK

- Eskolaz kanpoko prestakuntza euskaraz, edo gehienbat euskaraz, ematen dituzten akademiak (%)
- Eskolaz kanpoko prestakuntzan euskaraz ematen diren ikastaroak (%)
- Ikasle kopurua eskolaz kanpoko euskarazko ikastaroetan (%)

3.3. Komunikazioa

3.3.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian ezagutzera eman...

- Udala, batez ere, www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da herritarrei honen guztiaren berri emateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

3.4. Eskaintza sustatu

3.4.1. Hitzarmena sinatu eskolaz kanpoko prestakuntzan dihardutenekin (musika eskolak, hizkuntza eskolak, margo eskolak...), euskarazko eskaintza handitzeko.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala herriko ume eta gazteentzako prestakuntzan eragiteko. Kanpainak diseinatu eta hitzarmenak sinatuko ditu eragileekin.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

Egitarau zehatzak

Helburua: Egitarau zehatzak eratu eta eskolei zuzendu euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko.

ADIERAZLEAK

- Parte hartzen duten eskolak (%)
- Ikasle kopurua ekintzetan (%)
- Antolaturiko egitarau kopurua (%)

3.5. Komunikazioa

3.5.1. Informazioa eman eskolei egitarau zehatzei buruz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian ezagutzera eman...

- Ikastetxeei gero eta ekintza eskaintza gehiago iristen zaie bai Udaletik bai beste eragileetatik. Hau ondo bideratzeko, ikastetxeei ezinbestekoa zaie plana egitea. Beraz, Udalak bere eskaintza osatu eta ikasturtea hasi orduko bidaliko die ikastetxeei (Julene Azpeitia lehiaketa, Zinea Euskaraz, Kontzertu didaktikoak...)

Arduraduna: Hezkuntza eta Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

3.5.2. Pleno txikiak: eskola-umeak euskara erabili dezaten tresnak eskaintzea ¹

Arduraduna: Alkatetza

Lehentasuna: Altua

3.5.3. Kontzertu didaktikoak: Eskola-umeentzako musika-ekitaldietan euskara eta musika uztartzea.

Arduraduna: Kultura saila

Lehentasuna: Altua

¹ 3.5.2. ekintza eta 3.5.3. ez daude HPSko eredu berrian, zuzen-zuzenean hartu ditugu Durangoko Udalaren aurreko Plan Estrategikotik

4. Administrazioa

Helburua: Euskararen ezagutza eta erabilera sustatu udal administrazioan, euskara hizkuntza-zerbitzua izan dadila bermatuz eta, arian-arian, lan-hizkuntza bilakatu dadin: DURANGOKO UDALAREN EUSKARA PLANA

Durangoko Udalak, 2008ko abenduaren 18an onartu zuen udal barruko *Euskararen Erabilera Plana 2008-2012*. Euskara Planak, besteak beste, helburuak, estrategiak eta ekintzak biltzen ditu eta, halaber, urtero egin beharreko *Kudeaketa Plana* eta ebaluazioa ere.

5. Lan mundua

Lan Mundua

Helburua: Lan munduan euskararen erabilera handitu

ADIERAZLEAK

- Udalerriko enpresak, guztira
- Erabilera plana duten enpresak (%)
- Euskararen erabilerari lotuta Bikain ziurtagiria duten enpresak (%)

5.1. Komunikazioa

5.1.1. Enpresei ezagutzera eman beste eskualde batzuetan alor honetan izan duten esperientzia, enpresari euskararen erabilera plan batek dakartzkion onurak, LanHitz programa...

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Ertaina

5.2. Laguntza Ekonomikoa eta Teknikoa Eskaini

5.2.2. Kanpo aholkularitza kontratatzekeo laguntzak eskaini enpresei: enpresa zerrenda, kontaktuak, diru-laguntzak...

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

Merkataritza eta Ostalaritza

Helburua: Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu

ADIERAZLEAK

- Merkataritza eta ostalaritza arloko establezimenduak, guztira
- Euskararen erabilerari lotutako Bikain ziurtagiria duten enpresak (%)

5.4. Sentsibilizazioa

5.4.1. Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragin, Hizkuntza Konpromi-soaren Zigilua bereganatzearen onurez, herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko lehen hitza euskaraz izan dadin, hizkuntza paisaia zaintzeko...

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala sentiberatze kanpainak zuzentzeko herritarrei, merkatari eta ostalariei: *lehen hitza euskaraz, ahoan euskeraz gozo, poltsa bete euskeraz...*

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.4.2. Errotulazioa finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarteen bitartez...

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala sentiberatze kanpainak ("merkealdia", "ordutegia"...) zuzentzeko herritarrei, merkatari eta ostalariei, orokorrean hizkuntza paisaia euskaldunagoa izan dadin.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.4.3. Banan-banako elkarrizketak egin merkatari eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala merkatari eta ostalariei jakinarazteko hizkuntza paisaiaren eta euskara erabiltzearen garrantziaz

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.5. Komunikazioa

5.5.1. Merkataritzan eta ostalaritzan dihardutenei ezagutzera eman beste eskualde batzuetan alor honetan izan duten esperientzia, negozioari euskara erabiltzeak euskararen erabilera plan batek dakarzkion onurak...

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala merkatarari eta ostalariei euskararen erabilera planak dakarzkion onuren berri emateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.5.2. Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: dirulaguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza teknikoa itzulpenetarako.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala merkatarari eta ostalariei honen guztiaren berri emateko *Ongi etorri* karpeta bidez, batez ere. Udaleko euskararen web gunea ere erabiliko da www.durango-euskaraz.net.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.5.3. Negozioetako jabeei jakitera eman zer eta non aurki dezaketen euskarazko materiala: dokumentu ereduak, fakturak, menuak ...

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala negozioetako jabeei honen guztiaren berri emateko. Udaleko euskararen web gunea ere erabiliko da www.durango-euskaraz.net.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.6. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

5.6.1. Arloko merkataritza eta ostalaritza elkarrekin koordinatuz proposamen orokor bat luzatu euskararen erabilera gehitzera bideratuta: ezagutza lantzeko, errotulazioa eta papeleria euskalduntzeko, material idatzien katalogoa (merkealdiak, itxita/zabalik)...

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala merkatarari eta ostalariei laguntza teknikoa eta ekonomikoa eskaini eta emateko. Zeregin honetan Udaleko euskararen web gunea ere erabiliko da, www.durango-euskaraz.net.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.6.2. Laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini errotuluak aldatzeko (toldoetan, ibilgailuetan...), itzulpenak bideratzeko...

- Udalak dirulaguntza deialdiaren bidez bultzatzen du merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako errotuluak euskaraz egon daitezen. Laguntza teknikoa GUK EUSKERAZ egitasmoren bidez ematen du.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.6.3. Ereduak, inprimakiak, hiztegiak, eta abar proposatu, eskaini eta sustatu.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala merkataritza, ostalari eta zerbitzuetan euskaraz funtzionatu nahi duenari laguntza teknikoa emateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

5.6.4. Logo lehiaketa antolatu: herriko dendari eta ostalariak euskarazko zerbitzua ematen dutela identifikatzeko.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala ekimena hau antolatzeko.

Arduraduna: Euskara eta Merkataritza Sailak

Lehentasuna: Ertaina

5.6.5. Euskararen presentzia kalitatezkoa bermatu noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio orrietan.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala, laguntza teknikoaren bidez, herrian egiten diren feria, azoka eta antzekoetan euskararen presentzia kalitatezkoa bermatzeko. Gainera, horrelako ekitaldietarako Udalak hizkuntza irizpideak ezarriak ditu.

Arduraduna: Euskara, Merkataritza eta Kultura
Sailak

Lehentasuna: Altua

5.6.6. Aldian-aldian laginak aukeratu eta erabiltzen den euskararen kalitatea aztertu.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Ertaina

6. Aisia

Helburua: Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu

ADIERAZLEAK

- Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi taldeak (%)
- Udalak euskaraz antolatzen dituen aisialdi ekimenak (%)

6.1. Sentsibilizazioa

6.1.1. Hitzarmena sinatu aisialdi taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala aisialdi taldeekin aurrelanak eta hitzarmenak prestatzeko.

Arduraduna: Euskara eta Gazteria Sailak

Lehentasuna: Altua

6.1.2. Aisialdi taldeetan eragin, etorri berriak, euskara eta aisialdia uztartuko dituzten ekimenak antolatu ditzaten.

Arduraduna: Euskara, Gazteria eta Inmigrazio
Sailak

Lehentasuna: Altua

6.2. Komunikazioa

6.2.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzaz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu.

- Aisialdi eskaintza zabala du Udalak herritarrei zuzenduta, adin tarteak bereiztuta eta sail desberdinetatik eginda. Euskaraz egiten den eskaintzaren informazio argi emango zaie herritarrei.

Arduraduna: Euskara, Kultura, Gizarte Ekintza
eta Gazteria Sailak

Lehentasuna: Altua

6.3. Eskaintza sustatu

6.3.1. Jendaurreko aisialdi jardueretan euskararen presentzia bultzatu kartelak, megafonia, esatariak...

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala, talde antolatzaileekin hitzarmenak sinatuta, jendaurreko jardueretan euskara beti egon dadin presente. Halaber, euskarriak euskaratzeko zerbitzua ere eskainiko die Euskara Zerbitzuak.

Arduraduna: Euskara, Kultura eta Gazteria
Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

6.3.2. Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka...); opor garaietako (tailerrak, informatika...); jolasak (herri-kirolak, jokoak...)

- Udalak umeentzako eskaintza zabala duela esan daiteke. Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditu txiki eta ez hain txikiei zuzenduta: UDA TOPERA (hiri-kanpamentuak), INAUTERIAK, EUSKAL ASTEA, GABONAK (Olentzero, izotz-pista, ume eta gazteentzako egitaraua)
- EUSKARA ZINE ARETOETARA programan hartzen dituzte herriko ume eta gazteak ikastetxeen bitartez.

Arduraduna: Euskara, Kultura eta Gazteria
Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

6.3.3. Urte osoko gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatu. Ekintza berri-tzaileak bultzatu.

Arduraduna: Gazteria Saila

Lehentasuna: Altua

6.3.4. Etorri berrien integrazioa bideratutako aisialdi programak bideratu.

- EUSKARA INDARTZEKO SAIOAK eskaini behar zaizkie 5 eta 16 urte bitarteko ume eta gazte etorri berriei, ikastetxeekin batera plangintza eginda. Beti ere, argi izanda helburua dela etorri berriek Udalak duen eskaintzaren "kontsumitzaile" izan behar dutela.

Arduraduna: Euskara, Gazteria eta Inmigrazio
Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

6.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

6.4.1. Laguntza eskaini, aisialdi taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papeleria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin: tarifa merkeagoak, diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...

- Udalak GUK EUSKARAZ egitasmoaren bidez eskaintzen die laguntza teknikoa herriko entitateei euskararen erabilera gehitzeko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

6.4.2. Diru-laguntza eskaini begirale-agiri ofiziala lortzeko ikastaroa edo aisialdiko formazioa hobetzeko ikastaroak euskaraz egiten dituzten herritarrei.

- Aisialdiko begiraleen lanak berebiziko garrantzia du hezitzaile izaera duen neurrian. Orain arte Udalak antolatu edota diruz lagundu dituen aisialdiko begirale ikastaroak euskaraz eskaini eta eman dira, eta horrela egiteko asmoa dago.

Arduraduna: Euskara eta Gazteria Sailak

Lehentasuna: Altua

7. Kirola

Helburua: Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

ADIERAZLEAK

- Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kirol taldeak/klub-ak (%)
- Kirol taldeetan euskaraz dakiten begiraleen presentzia (%)
- Herriko kiroldegian euskaraz eskaintzen diren kirol ikastaroak (%)
- Herriko kiroldegian euskarazko ikastaroetan partaidetza (%)
- Euskararen presentzia herriko kirol gune nagusietako paisaian (%)

7.1. Sentsibilizazioa

7.1.1. Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala kirol taldeekin aurrelanak eta hitzarmenak prestatzeko.

Arduraduna: Euskara eta Kirol Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

7.2. Komunikazioa

7.2.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko kirol eskaintzaz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

- Zeregin honetan Udaleko euskararen web gunea erabiliko da, unean uneko euskarazko kirol jarduera eta ekitaldien berri emango dira, beraz, www.durango-euskaraz.net atarian.

Arduraduna: Euskara eta Kirol Sailak

Lehentasuna: Altua

7.3. Eskaintza sustatu

7.3.1. Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu (futbol zelaian, saskibaloi kantxan, pilotalekuan...) kartelak, megafonia, esatariak...

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala, talde antolatzaileekin hitzarmenak sinatuta, jendaurreko jardueretan euskara beti egon dadin presente. Halaber, euskarriak euskaratzeko zerbitzua ere eskainiko die Euskara Zerbitzuak.

Arduraduna: Euskara eta Kirol Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

7.3.2. Herriko kiroldegietako Kirol monitoreentzako ikastaro bereziak antolatu.

- Kirol monitoreen lanak berebiziko garrantzia du hezitzaile izaera duen neurrian. Beraz, oso garrantzitsua da monitoreak trebatzea gai izan daitezen antolatzen diren kirol jarduerak euskaraz emateko.

Arduraduna: Euskara eta Kirol Saila

Lehentasuna: Altua

7.3.3. Herriko kiroldegietako haur eta gazteentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.

- Udalak hizkuntza irizpideak eta euskararen ordenantzak onartuta ditu. Ikastaro, tailer eta antzeko eskaintzari dagokionez hauxe dio 38. artikulua: *Udaleko sail guztiak, erakunde autonomoak barne, euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, inmigrazioa eta kirol arloek euskaraz ere eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen denean argi eta garbi adierazi behar da berau zein hizkuntzatan egingo den.*

Arduraduna: Euskara eta Kirol Sailak, eta UKE

Lehentasuna: Erabatekoa

7.3.4. Herriko kiroldegietako helduentzako kirol ikastaroetan euskarazkoen eskaintza handitu.

- Euskara Ordenantzaren 38. artikulua diotenaren arabera, *Udaleko sail guztiak, erakunde autonomoak barne, euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, inmigrazioa eta kirol arloek euskaraz ere eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen denean argi eta garbi adierazi behar da berau zein hizkuntzatan egingo den.*

Arduraduna: Euskara eta Kirol Sailak, eta Durango Kirolak

Lehentasuna: Erabatekoa

7.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

7.4.1. Laguntzak bideratu kirol jardueretan euskaraz dakiten begiraleen presentzia bermatzeko: begiraleen zerrenda, pizgarri ekonomikoak, bitartekaritza...

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

7.4.2. Diru-laguntzak eskaini euskarazko eskolaz kanpoko kirol jarduerak antolatzeko, boladan dauden kontuak aintzat hartuta eta arreta berezia jarrita orain arte euskarari lotuak egon ez diren alor eta ekintzei.

- Udalak dirulaguntza deialdia egiten du “Euskara Sustatzeko Ekimenak” garatzeko jarduerak eta egitasmoak antolatzeagatik. Honen barruan, laguntzen denetako bat “euskararen erabilera sustatzea eskolaz kanpoko ekintzetan” da. Kirol jarduerak ere sartzen dira, jakina.

Arduraduna: Euskara eta Kirol Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

7.4.3. Baliabide teknikoak eskaini kirol taldeetan sortu eta herritarrei helarazten zaien papeleria euskaraz egon dadin edota kalitatezkoa izan dadin: diru-laguntzak, hizkuntza aholkularitza...

- Udalak GUK EUSKARAZ egitasmoaren bidez eskaintzen die laguntza teknikoa herriko entitateei euskararen erabilera gehitzeko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

7.4.4. Euskaraz antolatu nahi diren ekintzetan beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak erraztu eta eskaini (polikiroldegia, bileretarako gelak, hitzaldietarako guneak...).

Arduraduna: Kirola eta Gazteria

Lehentasuna: Altua

8. Kulturgintza

Euskarazko Kultur Ekimenak

Helburua: Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.

ADIERAZLEAK

- Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak (%)
- Euskaraz antolatutako ekimenetan partaidetza (%)

8.1. Sentsibilizazioa eta komunikazioa

8.1.1. Herritarren artean euskarazko kultur eskaintza ezagutarazi: gidak, katalogoak, web orriak, sakelakoa erabilita...

- Zeregin honetan Udaleko euskararen web gunea erabiliko da, unean uneko euskarazko kultur jarduera eta ekitaldien berri emango dira, beraz, www.durango-euskaraz.net atarian.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

8.1.2. Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko.

- GUK EUSKERAZ egitasmoaz baliatuko da Udala kultur taldeekin dituen hitzarmenak egokitzeko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

8.1.3. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere partehartzera bultzatu: "Euskara zine aretoetara"...

- EUSKARA ZINE ARETOETARA programaz gain, Udalak ikastetxeetako hau eta gazteei zuzentzen dizkie beste hainbat egitarau: Pleno txikiak, kontzertu didaktikoak, Julene Azpeitia Lehiaketa...

Arduraduna: Euskara eta Hezkuntza Saila

Lehentasuna: Altua

8.1.4. Etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak, euskarazko kultur jarduerak kontsumitzera animatzeko.

Arduraduna: Euskara, Kultura eta Inmigrazio Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

8.2. Eskaintza sustatu

8.2.1. Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatu (kartelak, esku orriak, megafonia, esatariak...)

- HERRIKO ETA AUZOETAKO FESTETAN ETA KULTUR EKITALDI NAGUSIETAN EUSKARAREN PRESENTZIA BERMATUko du Udalak. Euskara Ordenantzaren 37. artikulua ezartzen duenaren arabera, *Udal instalazioak erabili edota udal dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarte eta entitateek ere euskara erabili beharko dute ekimena iragartzeko erabiliko dituzten euskarrietan eta baita ahozko komunikazioetan ere, esaterako, ekitaldia aurkezterakoan edota burutzen ari denean.* Halaber, dio, *Durangoko Udalak herriko kultur, kirol, aisialdi eta gainontzeko elkarten euskararen erabilera indartzeko, laguntza eta aholkularitza tekniko eskainiko die udaleko euskara zerbitzuaren bitartez. Esaterako, testu laburrak euskaratzeko eta zuzenketak egiteko, dirulaguntzen inguruko aholkularitza emateko, e.a.* Eta 38. artikulua hauxe: *Udaleko sail guztiek, erakunde autonomoak barne, euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, inmigrazioa eta kirol arloek euskaraz ere eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen denean argi eta garbi adierazi behar da zein hizkuntzatan egingo den.*

Arduraduna: Euskara eta Kultura Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

8.2.2. Kultura arloan herritarren eta talde ezberdinen ekarpenak biltzeko guneak sortu: web guneak, foroak, bilerak...

- Zeregin honetan www.durango-euskaraz.net Udaleko euskararen web gunea erabiliko da. Unean uneko euskarazko kultur jarduera eta ekitaldien berri emateaz gain, foroak eta loturak ere sartu eta sortzen saiatuko da Udala.

Arduraduna: Kultura Saila, San Agustin k.g.

Lehentasuna: Altua

8.2.3. Haurrentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu.

- Kalitatezko kultur emanaldiak diogunean, kultur emanaldi "erakargarriak" eskaintzea dugu helburu.

Arduraduna: Kultura Saila, San Agustin k.g.

Lehentasuna: Erabatekoa

8.2.4. Gazteentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kankak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...

- Kalitatezko kultur emanaldiak diogunean, kultur emanaldi "erakargarriak" eskaintzea dugu helburu.

Arduraduna: Kultura eta Gazteria Sailak

Lehentasuna: Erabatekoa

8.2.5. Helduentzako kalitatezko kultur emanaldiak antolatu: erakusketak, hitzaldiak, proiektzioak, zinema, kankak eta bestelako musika emanaldiak, dantzak, antzerkiak, bertso dramak...

- Kalitatezko kultur emanaldiak diogunean, kultur emanaldi “erakargarriak” eskaintzea dugu helburu.

Arduraduna: Kultura Saila, San Agustin k.g.

Lehentasuna: Altua

8.2.6. Euskarazko kultur zirkuituetan parte hartu.

- Batez ere, San Agustin kultur gunearen bidez sartzen da Udala euskarazko kultur zirkuituetan.

Arduraduna: San Agustin Kultur Gunea

Lehentasuna: Altua

8.2.7. Kultura arloko euskararen plan estrategikoa egin hurrengo urteetarako, udalerriko eragile ezberdinekin elkarlanean, betiere, euskararen erabilera eta presentzia handitzera bideratua.

- Udaleko Kultura Sailaren egiteko honetan parte hartuko du Euskara Sailak.

Arduraduna: Kultura eta Euskara Sailak

Lehentasuna: Altua

8.3. Kulturen arteko harremanak sendotzea sustatu

8.3.1. Ekitaldiak antolatu herrialde desberdinetako ohiturak ezagutzera emateko: musika, janari, bestelako produktu, merkatu, dantza, kirol... edota beste gairen baten inguruan.

- Erkidegoen Jaialdia, Euskal Astea, Dantza Eguna, bisita gidatuak Bilboko Arte Ederretako Museora

Arduraduna: Inmigrazio, Kultura eta Euskara
Sailak

Lehentasuna: Altua

8.3.2. Hizlaritzat etorri berriak hartu eta ekitaldiak antolatu haien esperientzia eta jatorriaren gainean ezagutza izateko.

- Udalak antolatzen dituen ekintzak aprobetxatuko ditugu etorri berriak hizlari jartzeko.

Arduraduna: Inmigrazio Saila

Lehentasuna: Altua

8.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

8.4.1. Euskaraz antolatu nahi diren kultur ekintzetarako beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak eskaini (zine aretoak, megafonia, hitzaldietarako gunea, bestelako azpiegitura...).

- UDALETAKO AZPIEGITURAK euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jartzen ditu Udalak. Halaber laguntza teknikoa ere ematen zaie.

Arduraduna: Kultura eta Euskara Sailak

Lehentasuna: Altua

8.4.2. Baliabide teknikoak eskaini kultur elkarteek sortu eta plazaratu nahi duten papeleria euskaraz egon dadin edota egokia izan dadin: dirulaguntzak, hizkuntza aholkularitza...

- Udalak GUK EUSKARAZ egitasmoaren bidez eskaintzen die laguntza teknikoa herriko entitateei euskararen erabilera gehitzeko

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

Kultur ekoizpenak eta sormena

Helburua: Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu

ADIERAZLEAK

- Herritarren euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak (€)
- Lagundutako ekoizpen/proiektu kopurua
- Lagundutako pertsona/talde kopurua

8.5. Sentsibilizazioa eta komunikazioa

8.5.1. Herritarren artean euskarazko kultur produkzioa ezagutarazi: gida, katalogo, web orri, euskalategi eta udaleko gune ezberdinetan...

- Zeregin honetan Udaleko euskararen web gunea erabiliko da, unean uneko euskarazko kultur produkzioaren berri emango da, zuzenean edota esteken bidez, www.durango-euskaraz.net atarian.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

8.5.2. Kultur estreinaldiak ezagutzera eman eta sarrerak zozketatu: dantza, erakusketa, zinema, antzerkigintza...

- San Agustin kultur gunearen bidez egitekoa da. Bera arduratzen baita, gehienbat, kultur estreinaldiak ezagutzera emateaz.

Arduraduna: Kultura Saila, San Agustin KG

Lehentasuna: Altua

8.6. Sormena bultzatu

8.6.1. Kulturgintza lantzeko tailerrak antolatu: marrazkiak, idazketa, argazkigintza, zinema, bideoa, web bidezkoa, literatura, dantza, kanta...

- Kultura Sailak tailerrak antolatzen ditu ikasturtero, baita Aukera berdintasunak eta Udal Liburutegiak ere. Euskarazko eskaintzen ugaritu behar da, saila bakoitzarekin plana eginda.

Arduraduna: Kultura, Aukera berdintasun eta Euskara Sailak. Udal Liburutegia

Lehentasuna: Altua

8.6.2. Kultur arloko lehiaketak antolatu, generoa eta adina aintzat hartuta: literatura (sms-ena; ipuinak webean; maitasun istorioak; lekuan lekuko lehiaketak (Peru Abarka...); argazkigintza, bideoklipak (sakelakoaz egindako grabazioena...), marrazkiak, dantza (koreografiak...)

- JULENE AZPEITIA LEHIAKETA da Udalak antolatzen duen ezagunena. Ipuinak, olerkiak eta bertso paperak saritzen dira. 10 eta 17 urte bitarteko durangarrei edota Durangoko ikastetxeetan ari diren ikasleei zuzenduta dago, eta baita 18tik gorakoei. Kategorian honetan edozeinek hartu dezake parte.
- Berdintasun saileko literatura lehiaketa

Arduraduna: Euskara, Kultura eta Aukera
berdintasun Sailak

Lehentasuna: Altua

8.7. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

8.7.1. Beka eta diru-laguntzak eskaini.

- SORMEN ARTISTIKORAKO BEKA antolatzen du Udaleko Astarloa Kulturgintza erakunde autonomoak

Arduraduna: Astarloa Kulturgintza eta Kultura
Saila

Lehentasuna: Altua

8.7.2. Lokalak, guneak eskaini kultur produkzioen erakustoki gisa.

- Kultura Saila eta Erakunde Autonomoekin batera lan egingo dugu euskal kulturaren produkzioa erakusteko.

Arduraduna: Kultura Saila

Lehentasuna: Altua

Irakurzaletasuna

Helburua: Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu

ADIERAZLEAK

- Udal liburutegian euskaraz erabilgarri dauden irakurgaiak (%)
- Liburutegian herritarrek euskaraz hartutako irakurgaiak (%)

8.8. Sentsibilizazioa eta Komunikazioa

8.8.1. Liburutegiko liburuak eguneratu eta katalogoa herritarren artean zabaldu.

- TRIBURUTEGIA egitasmoa du abian Udal liburutegiak ume eta gazteei zuzenduta, ezagutzera emateko eta euskal materialen erabilera sustatzeko bertan.

Arduraduna: Udal Liburutegia

Lehentasuna: Erabatekoa

8.8.2. Euskal literaturako titulu nagusiak (irakurrienak, sarituak...) ezagutzera eman: udalerriko web orrian...

- Udal Liburutegiaren eta Euskara Sailaren web guneak erabiliko ditu Udalak euskal literaturaren zabalkunde egiteko.

Arduraduna: Udal Liburutegia eta Euskara
Saila

Lehentasuna:

8.8.3. Herriaren neurriko liburu azokak antolatu.

- Durangon egiten da Euskal herriko azokarik ezagunena eta garrantzitsuen, DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA, hain zuzen ere. Gerediaga elkarteak antolatzen du eta Udalak diruz lagundu.

Arduraduna: Gerediaga Elkartea

Lehentasuna: Erabatekoa

8.9. Eskaintza sustatu

8.9.1. Irakurketa tailerrak antolatu.

- IRAKURLEEN TXOKOA du abian Udal Liburutegiak.

Arduraduna: Udal Liburutegia

Lehentasuna: Altua

8.9.2. Modan dauden idazleen hitzaldiak antolatu: idazteko teknikak, ohiturak, inspirazioa, bidaiak, liburuen komentarioak...

- Ikastetxe, Udal Liburutegia eta liburugintzako eragileen artean IDAZLEEKIN SOLASALDIAK programa planifikatu eta abian ipiniko dugu. Halaber, urtero antolatzen diren HAUR LITERATURA ARETOAn eta UMEEN TXOKOA LIBURU AZOKAN idazleek solasaldiak eskaintzen dizkie ume eta gazteei.

Arduraduna: Udal Liburutegia eta Euskara
Saila

Lehentasuna: Altua

8.9.3. Liburuaren eguna ospatu.

- Liburuaren egunaren inguruan ekitaldiak antolatzeko proposamena egin daiteke (Apirilean Sarrionandiaren urtebetetzea dela aprobetxatu ahal dugu).

Arduraduna: Udal Liburutegia

Lehentasuna: Altua

8.9.4. IPUIN KONTALARIEN SAIOAK Udal Liburutegian²

Arduraduna: Udal Liburutegia

Lehentasuna: Altua

8.9.5. HAUR LITERATURA ARETOA eta UMEEN TXOKOA LIBURU AZOKAN: Eragin esparruko ikastetxeekin batera euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

8.9.6. ESKUALDEKO IDAZLEEN ARGITALPENAK SUSTATU: Errose Bustintza, Kirikiño, Astarloa, Sarrionandia...

Arduraduna:

Lehentasuna:

² 8.9.4., 8.9.5. eta 8.9.6. ekintzak ez daude HPSko eredu berrian, zuzen-zuzenean hartu ditugu Durangoko Udalaren aurreko Plan Estrategikotik

Tokian tokikoa

Helburua: Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu

ADIERAZLEAK

- Tokian tokiko hizkeraren erabilera (kale neurketarekin batera)
- Sortu eta hedatutako produktu kopurua, euskarria edozein delarik ere (liburuak, jolasak, ...)
- Informazio honen hedapenera zuzendutako ekimen kopurua

8.10. Sentsibilizazioa eta komunikazioa

8.10.1. Herritarrengan eragin euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gida bat, argitalpen txiki bat...

- Udalak www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da herritarrengana iristeko eta eragiteko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

8.10.2. Ikastetxeekin hitzarmenak sinatu, gai zehatz interesgarriak landu eta herriko webean zintzilikatzeko.

- Ikastetxeekin batera adostuta eta landutako gaiak www.durango-euskaraz.net web gunean eskegiko ditugu.

Arduraduna: Euskara eta Hezkuntza Sailak

Lehentasuna: Altua

8.11. ESKAINTZA SUSTATU

8.11.1. Herriko istorio zaharrak, kondairak, ohiturak... ezagutzera eman: hitzaldiak ikastetxeekin elkarlanean; herriko adineko jendearekin elkarlanean, jai esanguratsuetan hizlari bat ekarri, grabaketak egin eta web orrian jarri...

- Landutako gaiak www.durango-euskaraz.net web gunean eskegiko ditugu. Anboto atsekarian edota bestelakoetan eskegitzea ere aztertuko da.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

8.11.2. Gai horiei lotuta lehiaketak antolatu herriko haur eta gazteen artean.

- Ikastetxeekin batera adostuta eta landuta proposatuko ditugu lehiaketak.

Arduraduna: Euskara eta Hezkuntza Sailak

Lehentasuna:

8.11.3. Bertako azpieuskalki, toponimia eta ohiturei lotuta eskualdeko beste udalerriekin elkarlanean jolas eta material didaktikoa sortzeko aukerak aztertu (arloan honetan landu diren beste esperientzia batzuk aztertu: Debarroa eta landa garapena...).

- Eskualdeko beste herriein lantzeko gaia da, eta baita Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoarekin batera ere.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna:

8.11.4. Tokian tokiko hizkera prestigiatzeko jardunaldiak edo saioak antolatu: berezitasunak gizarteratu, hitanoa...

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna:

8.11.5. Tokian tokiko euskararen erabilera bultzatu.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna:

8.11.6. Abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainak abian jarri.

- Udalak www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da, batez ere, "Izenak eta abizenak euskaraz" kanpainaren zabalkundea egiteko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

8.12. Laguntza ekonomikoa ikerketa eta argitalpen interesgarriak sustatzeko

8.12.1. Tokian tokiko hizkera eta toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatu (ahozkoa zein idatzizkoa): toponimia, inguruko azpieuskalkiaren ezaugarriak, bilakaera, haur eta gazteen ezagutza eta erabilerari buruzko azterlana...

- Udalak ASTARLOA BEKA deialdia egiten du ondare kulturala bildu, digitalizatu eta zabaltzeko asmoaz.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

Erljioa

Helburua: Erljio saioetan euskararen erabilera handitu

ADIERAZLEAK

- Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, saioak guztira
- Sinesmen-mota guztietako saioak aintzat hartuta, euskararen erabilera (%)
- Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, euskarazko erljio saioetako partaidetza (%)

8.13. Sentsibilizazioa

8.13.1. Sinesmen-motak aintzak hartu eta barrutietan eragin, euskarari lekua egiteko eta erljio saioak euskaraz ere antolatzeke.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Ertaina

8.14. Laguntza teknikoa eskaini

8.14.1. Laguntza teknikoa eskaini, erljio saioetako materialaren itzulpenerako eta testuak kalitatezkoak direla bermatzeko.

- Laguntza tekniko eskaintzeaz gain, dirulaguntza ematea ere aztertuko da baldintzak batzuk betez gero, hala nola, hizkuntza irizpideak argitalpenetan.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

9. Komunikabideak

Euskarazko komunikabideak sustatu

Helburua: Herrian edo eskualdean euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan.

ADIERAZLEAK

- Euskara hutsezko komunikabideak (%)
- Euskararen erabilera euskara hutsezkoak ez diren tokian tokiko komunikabideetan (%)

9.1. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

9.1.1. Eskualdeko euskarazko komunikabideen hedapena diruz lagundu.

- Udalak deialdiaren bidez esleitzen ditu dirulaguntzak “Euskara Sustatzeko Ekimenak” garatzeko jarduerak eta egitasmoak antolatzeagatik. Hauen artean eskualde edo herri-mailako euskarazko komunikabideak ere sartzen dira.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

9.1.2. Herriko komunikabideetako euskararen egokitasuna bermatu: gomendioak egin, akatsak zuzendu, euskaraz argi eta egoki idazteko laguntza eskaini...

- Udalak Euskara Zerbitzuaren bidez ematen die laguntza eta aholkularitza herriko argitalpenak kaleratzen dituzten entitateei. Halaber, dirulaguntza deialdia egiten du eskualde eta herri mailako argitalpenetan euskararen erabilera bultzatzeko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

Publizitatea euskaraz

Helburua: Publizitatean euskararen presentzia bultzatu.

ADIERAZLEAK

- Udalak eta bere menpeko erakundeek euskaraz argitaratutako publizitatea (%)
- Enpresa, merkataria eta elkarteei eskainitako baliabideak publizitatea euskaraz egiteko

9.2. Sentsibilizazioa

9.2.1. Enpresa, merkataria eta elkarteei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jarri publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko.

- Udalak PUBLIZITATEA EUSKARAZ egitearen aldeko sentsibilizazioan lan egingo du sektoreetako elkarteekin batera (merkatarien elkarte, ostalarien elkarte,...)

Arduraduna: Euskara eta Merkataritza Sailak

Lehentasuna: Altua

9.2.2. Publizitate enpresetan eragin, bere jardueran euskara barneratzeak izan dezakeen eragina ezagutzera emateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Ertaina

9.3. Eskaintza sustatu

9.3.1. Udalak egiten dituen publizitate ekimenetan euskara lehenetsi.

- Euskara Planean zehazten diren "hizkuntza irizpideak" izango dira kontuan

Arduraduna: Udaleko prentsa arduraduna eta Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

9.3.2. Euskaraz egindako publizitate kanpaina onenarentzat sariak antolatu.

- Udalak herriko ekimen hau aurrera ateratzeko merkatarien elkarteekin adosteko ahalegina egingo du.

Arduraduna: Euskara eta Merkataritza Sailak

Lehentasuna: Ertaina

9.4. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

9.4.1. Enpresa, merkataritza eta elkartei laguntza tekniko eta ekonomikoa eskaini publikitatearen euskaraz egin dezaten: itzulpen gastuak, publikitatearen ehuneko bat...)

- Udalak Euskara Zerbitzuaren bidez ematen die laguntza teknikoa eta aholkularitza herriko enpresa eta elkartei publikitatearen euskaraz egin dezaten

Arduraduna: Euskara eta Merkataritza Sailak

Lehetasuna: Altua

10. Teknologia berriak

Helburua: Teknologia berrietan euskararen erabilera handitu.

ADIERAZLEAK

- Udaleko web orrira euskaraz egiten diren sarrerak (%)
- Udalaren euskara txokora egiten diren sarrerak
- Sarean euskararen presentzia gehitzera bideratutako baliabide kopurua (€)
- Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialak (%) eta horien erabilera (%)

10.1. Sentsibilizazioa eta komunikazioa

10.1.1. Herritarrei teknologia berrien arloan euskaraz sortzen dena aditzera eman (programak deskargatzeko aukerak, Xuxen, telefonia mobila, elebila, weg gune berrien zerrenda...): sms bidez, gida edo katalogoa erabilita, web orrian zintzilikatuta, www.euskara.euskadi.net-era linkak...

- Udala www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da, batez ere, teknologia berriei buruzko guztiaren berri emateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

10.1.2. Herritarrengan eragin, batez ere gazteenengan, euskaraz jo dezaten sarera, informazio bila.

- Sentiberatze kanpainak egingo dira gazteek internetera euskaraz jo dezaten eta baita euskaraz erabili ditzaten facebook, wikipedia eta antzekoak.

Arduraduna: Gazteria eta Euskara Sailak

Lehentasuna: Altua

10.1.3. Herritarrengan eragin, sarean barneratzen dutena euskaraz egon dadin.

- Sentiberatze kanpainak egingo dira, herritarrek interneten sartzten duten informazioa euskaraz izan dadin, esate baterako facebook, wikipedia eta antzekoetan.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

10.1.4. Herritarrengan eragin, batez ere gazteenengan, sakelakoetan, *ipodetan* eta gainerako tresnetan euskarazko menuak, mezuak... euskaraz izan daitezen.

- Sentiberatze kanpainak egingo dira, herritarrek erabiltzen dituzten tresnetako menuak eta abarrekoak euskaraz izan daitezen.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

10.1.5. Herritarren eskura jarri euskararen ⁵⁵ kalitatea hobetzea helburu duten

argitalpenak: idatzien ereduak, hiztegi elektronikoak...

- Udala www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da, batez ere, EUSKARA LANTZEKO TRESNEN ZABALKUNDEA EGITEKO.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

10.2. Eskaintza sustatu

10.2.1. Euskarazko eskaintza bermatu KZ guneetako ikastaroetan.

- Udalak hitzarmena egingo du KZgunearekin ikastaroen eskaintza euskaraz izan dadin.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

10.2.2. Erabilgarri jarri udal guneetan adin guztientzako eta era guztietako jokoak eta bestelako programak.

- Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskainiko ditu udalak

Arduraduna: Informatika eta Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

10.2.3. Udaleko webean foroak sortu euskaraz jarduteko edozein gairen inguruan.

- Udala www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da iritzi edota eztabaida foroak sortzeko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

10.2.4. Udalaren web orrian Euskararen Txokoa sortu eta euskararekin zerikusia duten edukiak (herriko hizkeraren ezaugarriak, azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak, euskararen normalizazio prozesuan sortzen den informazioa, ekimenak, egitarauak herrian bertan egiten diren kale neurketak edo bestelakoak...).

- Udalak abian du www.durango-euskaraz.net web gunea, tresna garrantzitsua Euskara Sailak normalkuntza plana aurrera erateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa

10.2.5. Sarea euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.

- Udala www.durango-euskaraz.net web guneaz baliatuko da euskarazko jarduera guztien berri emateko.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Altua

10.2. Laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini

10.2.1. Euskarazko blogak sortzea bultzatu.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Ertaina

10.2.2. Herritarrek sarean ezartzen duten informazioa euskaraz ere egon dadin laguntzak bideratu: testuak euskaraz emateko, zuzentzeko...

- Udalak dirulaguntza deialdia egiten du WEB ORRIAK euskaraz sortu edo euskaratzeko. Halaber, laguntza teknikoa eta aholkularitza ere eskaintzen du.

Arduraduna: Euskara Saila

Lehentasuna: Erabatekoa